

## Palestinako herriarekiko elkartasuna eta laguntza

Orain direla 75 urte inperialismoak okupazio plan bat diseinatu zuen eta horren emaitza izango litzateke Palestinako herria desagerraraztea. Gaur egun krisi estruktural kapitalistak baliabide energetiko guztiak berenganatzea du Helburutzat. Beraz, prest dago miloika gizaki hiltzeko eta batez ere Palestinako herria, estatu sionista satelitearen iraupena bermatzeko.

Urte guzti hauetan iraun duen herri Palestinarrak, nahikoa dela erabaki du. Tankeen eta dointasunezko armen aurka intifadetan harriak erabiltzea bukatu da. Israel erakunde sionistak ez du gerra gatazkarik. Herri babesgabe baten aurkako genozidioa burutzen ari da, naziek egin zutenarekin parekatuz.

**Palestinako herriak eskubidea du bere subiranotasuna eta askatasuna defendatzeko, beharrezkotzat eta egokitzat jotzen dituen bitartekoak erabiliz eta inor ez da nor haren alde erabakitzeke.**

Salatu nahi ditugu distantziakideak, pake eta irtenbide negoziatua eskatzeko maskaradaren ondoren inperialismoaren ondoan jartzen direnak. Eta galde dezagun; ze irtenbide? Egungo egoerari eusten diona?

Erakunde sionista, Palestinarren orainaren eta etorkizunaren jabe da. Zein da konponbidea; Inbaditzailearen eta inbadituaren artean negoziatua? Eraildakoaren eta hiltzailearen artean negoziatua? Bortxatua eta bortxatzailearena? Hau da inperialimoarekin lanean dirauten konponbidea. Guk zalantzarik gabe babesten ditugu erresistentzia Palestinarrak gauzatzen duena.

Apartheid, sufrimendu eta heriotza urteetan bizi izan eta bizitzen duenen herria, Yankien inperialismoak markatuta dituen kartekin jokatzeko den mahai batean negoziatu daitekela sinestarazi nahi digutenak ere ba daude. Gaur egun desadosten dutenak, Palestina bere existentzia defendatzeko gerrarako prest egoteari ezezkoa emoten diotenak.

Erakunde sionista koldar eta kriminala, mendebaldeko kolektiboek babestuta, beraien artean Espainiar estatuak Palestinako altxamenduari erantzuten dio errugabeak erailtzen, haien etxe eta hospitaletan. Hilketak kriminalak burutzen.

Dei egiten diogu langilegoari boikot aktiboa eusteko, honekin erakunde sionistek arma eta edozein ornidura ez dezaten Jazo.

Aski da ipokresi politiko eta moralez, mozorroa kendu eta baztertu ditzagun herrien autodeterminazio eskubidearen aurka daudenak. Zeinek hitz hutsak baino ez lituzke erabiltzen. Ukatzen dute herrien subirontasun politiko eta sozialetako eskubidea. Estatu Palestino soberano baten alde, Jordanetik mediterraneora, israeldar erakunde sionistaren desagerraraztearen alde.

**GORA PALESTINAKO BORROKA ARMATUA!!**

**GORA HERRIEN SUBIRONTASUNA!!**

**GORA PALESTINA LIBRE!!!!**